

EUSKARA JENDEA



Erromako Inperioan

C MAILA irakaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbat erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginetan gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.


Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800-1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK ETA EUSKARA ESKOLAK

Dokumental hauek euskara ikasleei hurbiltzeko asmoz, kaier didaktiko batzuk sortu ditugu. Kaiaretan dokumentaletako kontakizunei jarraitzeko eta, horrekin batera, hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko zaizkie B eta C mailako ikasleei.

Jarduerak banaka (ikasleak bere kabuz) egiteko moduan diseinatuta daude, eta horrela aurkeztu dira ikasleen kaiaretan. Baina, nahi izanez gero, euskara ikastaldeetan ere erabili ahal izango ditugu lan hauek. Horrena erabili nahi izanez gero, kontuan hartu ondoko jarraibide hauek:

- Irakurri arretaz irakaslearen gidako jarraibideak eta oharrak eskolarako jardueren helburuak argi izateko, eta jarduera horien inguruko ohar interesgarriak ezagutzeko.
- Jarduera bakoitza proposatu aurretik, irakurri arretaz ikaslearen liburuko jarraibideak.
- Jardueren enuntziatuei jarraiki, bidera itzazu eskolako lanak: lan batzuk banaka egitea proposatu, eta  sinboloa agertzen denean, ikasleek talde lanean jarri.

ERROMAKO INPERIOAN (B maila)

Orri hauetan “Euskara jendea” sortako “Erromako Inperioan” dokumentalaren ikusketa eta lanketa euskara eskolan bideratzeko argibideak dituzu. Dokumentalak erromatarrak gure lurretan izan ziren garaietara hurbilduko gaitu, Erromako Inperioak gure arbasoen bizimoduan, eta bereziki, hizkuntzan, izan zuen eraginaz mintzatzeko zaigu.

Eskolak planifikatu aurretik, kontuan hartu ondoko hauek:

- Lan osoaren iraupena, dokumentalaren ikusketa barne, hiru ordotara luza daiteke. Balizko iraupen hori gogoan izan beharko duzu zeure eskolen ordutegira egokitzeko orduan.
- Ikaslearen kaiaretan jarduera guztiak banaka egiteko moduan aurkeztuta daudenez, jarduera batzuk, nahi izanez gero, etxean egitea proposatu ahal izango duzu.

DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK

A. Ikusiko den dokumentala eta egingo diren lanak ikasleei labur aurkeztu. Aurkezpena bideratzeko ikaslearen liburuko 3. orria erabil daiteke.

B. KOKA GAITEZEN

1. “**Hasierako paragrafoa osatu: Erroman gara**” ariketa egin (ikas. lib., 4. or.).
2. “**Zer dakigu Erromako Inperioari buruz?**” ariketa egin (ikas. lib., 5. or.).
3. “**Bertoko herriak erromatarren garaian**” ariketa egin (ikas. lib., 6. or.).

HELBURUA: Aurreko ariketa guztien helburua dokumentalaren ikusketa atseginagoa eta erosoagoa bilakatzea da. Horretarako ikasleak testuinguru egokian kokatzen saiatuko gara.

GOGOAN IZAN: Ariketa hauek eginkizuna girotzeko dira. Hortaz, garrantzitsua da ikasleak presionaturik ez sentitzea. Horretarako komeni da argi uztea eskatzen zaiena hipotesiak egitea dela, ez dituztela erantzunak jakin behar.

C. INTERESEKO KONTUAK BILATU

4. “**Dokumentala ikusi aurretik ikusketa prestatzen**” ataleko ariketak egin (ikas. lib., 7. or.).

HELBURUA: Dokumentalaren ikusketa aktiboa bideratzeko, ikasleek, elkarren laguntzaz, jakin nahi luketena aurreikusiko dute.

GOGOAN IZAN: Galderak taldeka komentatzea oso interesgarria izan daiteke galdeteegiak borobiltzeko, eta gaiari buruzko interesa handitzeko.

DOKUMENTALA IKUSI BITARTEAN

D. IKUSKETA AKTIBOA EGINGO DUGU

5. “**Oharrak jasotzeko orriak prestatu**” ariketa egin (ikas. lib., 9. or.).
6. “**Ikusi bitartean oharrak jaso**” ariketa egin (ikas. lib., 10. or.).

HELBURUA: Dokumentala ikusi bitartean ikasleen arreta eta interesa ziurtatu.

DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN

E. NOLA KONTATUKO ZENUKE?

7. “Gaiari buruzko azalpenak prestatzen” ariketa egin (ikas. lib., 11. or.).

HELBURUA: Gaiari buruzko hausnarketa egitea, eta ikusitako zerbaiti buruzko azalpenak nola planifika daitezkeen ikastea.

F. GRAMATIKARI BEGIRADATXOA?

8. “Badakit, ez dakit” ariketa egin (ikas. lib., 13. or.).

9. “Euskara dezagun” ariketa egin (ikas. lib., 15. or.).

G. GRAMATIKA HOBETZEKO PLANA

10. “Zer ikasi behar dut?” ariketa egin (ikas. lib., 16. or.).

HELBURUA: Dokumentalean entzundako adierazpenak aitzakia, ikasleek euren hutsune gramatikalak identifikatzeko eta gainditzeko teknika ikastea eta erabiltzea.

GOGOAN IZAN: Ariketako teknika egitura gramatikaren erabilera apurka–apurka hobetzen joateko estrategia da. Hortaz, ez ahaztu hurrengo egunetan honen jarraipena bideratzen.

F. ONDORIOAK ETA AUTO-EBALUAZIOA (ikas. lib., 17. or.).

Ikasleek auto–ebaluazio fitxa banaka bete ondoren, balorazioa guztion artean egin.

HELBURUA: Ikasleek ikusitako dokumentala eta egindako lanak baloratzea.